

EDUKIA

Aurkezpena	7
Euskararen arautegia	13
XI Kongresuaren 6. ebazpena	47
<i>Euskararen normalizazioa bultzatzea, norberaren eta guztion konpromisoa</i>	

EUSKARAREN ARAUTEGIA



AURKEZPENA

ELaren baitan euskara sustatzeko bilakaeran, erabaki garrantzitsu bat hartu dugu aurten, euskararen normalizazio plana onartzearena, hain zuzen.

Sindikatuan normalizazio prozesu hau abian jartzearekin erabaki politiko garrantzitsu bat hartu dugu: euskararen gaia antolakuntza ikuspegi batetik planifikatzea, antolakuntzaren azterketan txertatzea, epe ertainean euskara ELAn zerbitzu hizkuntza eta lan hizkuntza osoa izan dadin. Horretarako, urteroko aurrekontuan, beharrezkoa den diru kopurua bideratuko dugu.

Arautegiak euskara normalizatu ahal izateko esparru orokorra definitzen du, euskararen erabilpenari buruzko erizpide orokorrak biltzen ditu. Urtero onartuko ditugun euskara planetan, epe horretarako jartzen ditugun helburuak eta baliabideak jasoko ditugu, Arautegia edukin zehatzekin betetzen joateko.

Hasi besterik ez gara egin. Gelditzen zaigun ibilbidean, aurrera pausuak eta akatsak ere egingo ditugu, dudarik gabe. Normalizazio prozesu honek aurrera egiteko berme nagusiak, ELako kide guztion parte hartzea eta euskararen aldeko konpromiso pertsonala dira.

Zentzu honetan, nahiz eta Arautegi honen izaera iraunkorra izan, eta urte batzuetarako pentsatuta egon, ziur gaude proposamen interesgarriak egon daitezkeela bere edukina hobetze aldera. Azken baten, Arautegia, normalizazioa bultzatzeko lan tresna da, eta eraginkorra izateko dinamikoa behar du izan.

Animatu zaitetz, zure ekarpenen zai gaude! Parte hartu, euskararen normalizazioaren erronka guztiona bait da!

Leire Txakartegi Iramategi
Euskara Batzordearen izenean
 2004/12/20

0. AURKIBIDEAK**0.1. AURKIBIDE OROKORRA**

1. Sarrera	13
2. Helburu orokorrak	15
3. Baliabideak	21
3.1. Giza Baliabideak	21
3.2. Prestakuntza	23
3.3. Laguntzak	26
4. Ezagutza	29
5. Barne erabilera	31
6. Kanpo erabilera	35
7. Motibazioa eta komunikazioa	39
8. Korpusa eta kalitatea	41
9. Azken xedapena	43

0.2. GAIKAKO AURKIBIDEA

Administrazioa eta erakunde publikoak (33. art.)	36
Afiliatu eta ordezkarietara harremanak (24. art.)	33
Ahozko komunikazioa oro har (19. art.)	31
Arautegia indarrean jarri (42. art.)	43
Arautegiaren helburuak (1. art.)	15
Arautegiaren informazioa eman (43. art.)	43
Arautegiaren oinarriak (2. art.)	15

Argitalpenak eta publizitatea (30. art.)	35
Baliabide informatikoak (14. art.)	26
Beste sindikatuak (34. art.)	36
Bestelako harremanak (35. art.)	37
Enpresak-enpresarien ordezkariak (32. art.)	36
Errotulazioa (22. art.)	32
Euskalduntze-alfabetatzea (8. art.)	23
Euskara Arduradun eta Koordinatzailea (5. art.)	22
Euskara Batzordearen osaketa (4. art.)	21
Euskara Batzordearen xedea (3. art.)	21
Euskara Laguntzailea (6. art.)	22
Euskara mailak (15. art.)	29
Euskara Plana eta Memoria (7. art.)	23
Euskararekiko motibazioa handitzea kanpo harremanetan (37. art.)	39
Euskararekiko motibazioa handitzea barne harremanetan (36. art.)	39
Euskararen Estilo Liburua (38. art.)	41
Euskaraz lan egiteko prestakuntza (9. art.)	24
Harrera hizkuntza (31. art.)	35
Idatzizko komunikazioak oro har (20. art.)	31
Idazki inprimatuak barne harremanetan (23 .art)	32
Idazki inprimatuak kanpo harremanetan (29. art.)	35
Informatikazko komunikazioak oro har (21. art.)	32

EUSKARAREN ARAUTEGIA

Itzulpen eta zuzenketa zerbitzua (11. art.)	26
Kanpo errotulazioa (28. art.)	35
Kanpoko komunikazioak ahoz eta idatziz (27. art.)	35
Langile berrien barne prestakuntza (10. art.)	25
Langile euskaldunen identifikazioa (18. art.)	30
Langileekiko harremanak (26. art.)	33
Langileen kontratazioa (17. art.)	29
Lanpostu elebidunak (16. art.)	29
Liberatuekiko harremanak eta euren zereginak (25. art.)	33
Telelaguntza (13. art.)	26
Terminologia (39. art.)	41
Toponimoak eta kale izenak (41. art.)	42
Zentroko laguntza (12. art.)	26
Zerrenda eta testu ofizialak (40. art.)	41

0.3. ARTIKULUKAKO AURKIBIDEA

1. art.	15	8. art.	23	15. art.	29
2. art.	15	9. art.	24	16. art.	29
3. art.	21	10. art.	25	17. art.	29
4. art.	21	11. art.	26	18. art.	30
5. art.	22	12. art.	26	19. art.	31
6. art.	22	13. art.	26	20. art.	31
7. art.	23	14. art.	26	21. art.	32

ELA Euskal Sindikatua

22. art. 32	30. art. 35	38. art. 41
23. art. 32	31. art. 35	39. art. 41
24. art. 33	32. art. 36	40. art. 41
25. art. 33	33. art. 36	41. art. 42
26. art. 33	34. art. 36	42. art. 43
27. art. 35	35. art. 37	43. art. 43
28. art. 35	36. art. 39	
29. art. 35	37. art. 39	

1. SARRERA

ELAk dituen erronka berrien artean, Sindikatuan euskararen erabilera normalizatzea ere badago, 2000 urtean egindako X. Kongresuan ebatzi zen moduan eta aurtengo Kongresuan ere berretsiko denaren arabera.

Euskara normalizatu ahal izateko, ondoren zehaztutako tresna arau emailea onartu du Sindikatuak: *ELAren Euskararen Arautegia*. Honen bidez, helburuak zehazteaz gain, euskara zerbitzu eta lan hizkuntza izateko beharko diren baliabide eta prozedurak jarriko dira martxan.

Euskararen normalizazioaren prozesu luze honi ondo eusteko, ELAren egitura osoa kontuan hartu da: Organo Konfederalak, Zerbitzu eta Atalak, Federazioak eta Eskualdeak.

Euskararen Arautegiak honako arlo hauek arautzen ditu:

- **Helburuak.** Arautegi honen bidez lortu nahi diren helburuak.
- **Baliabideak.** Euskararen normalizaziorako ezartzen diren baliabideak: Euskara Batzordea, Koordinatzaile eta Arduraduna, Prestakuntza (euskalduntzea eta euskaraz lan egiteko prestakuntza), zentroko hizkuntz laguntza eta itzulpen- zuzenketa zerbitzua.
- **Ezagutza.** Euskararen ezagutza handitzeko neurriak.
- **Barne erabilera.** Sindikatu barruan egiten diren ahozko eta idatzizko komunikazioetan euskara areagotzeko neurriak.
- **Kanpo erabilera.** Kanpo harremanetan euskararen erabilera areagotzeko neurriak.

- **Motibazio eta komunikazioa.** Euskararekiko motibazioa handitzeko neurriak.
- **Korpus eta kalitatea.** Euskararen edukiak, alegia, ELAn erabili beharreko hizkuntza estiloa, terminologia, toponimoak eta gainontzeko euskararen edukiak arautuko dira. Baita sindikatuan erabiltzen den euskararen kalitatea ere.

Arautegi honetan ezarritako guztia epe erdira gauzatzea aurreikusten da. Prozesu luze honetan egin beharreko guztia behar bezala garatu ahal izateko, Arautegiari, Euskara Plana erantsiko zaio urtero.

Plan horretan, ELAk jarriko dituen baliabideak eta urte bakoitzean ezagutzan, kanpo eta barne erabileran, motibazioan eta korpus alorrean egongo diren helburu eta ekintzak zehazten dira, bai orokorrean bai zentroka (Organo Konfederalak, Zerbitzu eta Atalak, Federazioak eta Eskualdeak).

Urte bakoitzaren amaieran, Memoria egingo da, eta honen bidez, Euskara Planaren betetze maila ezagutzeaz gain, hurrengo urteko ekintzak eta egin beharreko osatze edo zuzenketa lanak zehaztuko dira.

2. HELBURU OROKORRAK

1. art. Arautegiaren helburuak. Arautegiak, X. Kongresuan erabakitakoaren ildotik, ondorengo helburuak lortzeko asmoz egin da:

- **Erakundeko langileen prestakuntza.** Horretarako euskara ikasteko beharrezkoak diren bitartekoak eskainiko dizkie, beren trebakuntza planetan hizkuntza ezagutzak kontuan izango ditu eta euskaraz lan egitea posible izan dadin trebatzeko baliabideak finkatuko ditu.
- **Barne eta kanpo dokumentazioaren argitalpen elebiduna.**
- **Barne harremanak euskalduntzea,** idatziz edo ahoz dela ere, erakundeko kideen artean eta afiliatuekin; bestalde, langileen kontratazioan elebidunak lehenetsiko dira.
- **Kanpo harremanetarako euskararen erabilpena handitzea,** beste erakundeekiko bilera eta deietan, zabaltzen diren informazioetan eta baita kanpo-irudian ere (kartelak, egoitzak, propaganda, etab.).
- **Lan munduan euskararekiko kezka hedatu eta normalizazio prozesuan protagonista izatea.**
- **Lan munduko eragileen arteko harremanak euskalduntzea,** bai harremanetan, bai sinatzen diren hitzarmen eta akordioetan.

2. art. Arautegiaren oinarriak. Arautegia, lehen aipatu den moduan, X. Kongresuko ebazpenean oinarritzen da eta, horrez gain, Eusko Jaurlaritzaren Euskara Biziberritzeko Plana eta Kontseiluaren Bai Euskarari Plan Estrategikoan hartutako konpromisoak ere kontuan hartzen ditu.

a) X. Kongresuaren ebazpena

**EUSKARAREN NORMALIZAZIOA
LAN MUNDUAN BULTZATU BEHARRA**

*Herritar guztiek, bizitzako zernahi unetan, euskara erabil-
tzeko aukera izatea oraindik iritsi gabeko egoera dugu eus-
kal gizartean. Euskararen normalizazioa alor eta esparru
guztietan lortu beharra dago, baita lan munduan ere, jaki-
nik, bestalde, horrek dakarren zailtasuna; ELAk ildo horri
jarraitu dio, bai bere barne-antolamendu eta bizitzako era-
bakietan, bai kanpotik proposatu izan zaizkion ekimenetan
parte hartuz.*

*Hain zuzen, duela bi urte Euskararen Kontseiluak gure hiz-
kuntzaren normalizazioari bultzada berezia emateko asmoz
"XXI. Menderako Akordioa" plazaratu zuenean, sindikatuak
harekin bat egin zuen, euskalgintzaren munduko erakunde
horrek egiten zuen diagnostikoarekin ados baitzegoen: Orain
arte, batik bat azken hogeitau urteotan, euskararen iraupena
ziurtatzeko ahalegin eta baliabide ugari erabili den arren, ez
da lortu gizarteko hainbat alorretan -besteak beste lan
munduan- aurrerapauso handirik egitea. Eta Akordioa sina-
tu genuenon asmoa geldialdi horretatik irtetea zen, euskara-
ren iraupen hutsa bermatzea baino areago bultzada indar-
tsu bat ematea.*

*Lan munduko normalizazioaren aldeko ekimenetan parte
hartzeaz gainera, barnera begira ere euskararen erabilpena-
ri buruz konpromisoak hartzeko prest agertu da ELA, horrela
gizartearen aurrean adierazten duen borondatea gauza
zehatzetan isla zedin. Konpromiso horiek Euskararen Plan
Estrategikoan jaso ziren.*

*Beraz, sindikatuak ebazpen honen bidez normalizazio asmo
horri eusteko nahia eta erabakia agertzearekin batera,*

Euskararen Plan Estrategikoaren baitan hartutako konpromisoak berresten ditu. Agindutako puntuak honako helburuetan biltzen dira (ikus. 1. art.).

Hau guztia berehala egiten hasteko moduan gaude; izan ere, puntu horietako batzuk dagoeneko sindikatuan betetzen dira, bete-betean ez bada ere. Bestalde, onartu beharra dago gai honi ez zaiola modu sistematiko eta antolatuan heldu.

Beraz, egoera horretatik ateratzearren, ELAk epe luzeagoan euskara normalizatzeko plan oso bat egiteko helburua izan behar du kontuan, eta, liberatu zein koadroen elebitasuna gehitzen den heinean, euskara lan hizkuntzat hartu.

b) Eusko Jaurlaritzaren Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia

VI.1. Planaren helburu nagusia

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren helburu nagusia da euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak bermatzeko behar diren hizkuntza-politikako neurriak erabakitzea eta bultzatzea. Euskal Herrian, euskararen berreskurapen osoa lortzeko maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean euskararen aldeko urratsak areagotzea.

Azken batean helburua da, herritar bakoitzaren hizkuntza-eskubideak guztiz errespetatuak izan daitezen lortzeko urratsak areagotzea, jakinik, botere publikoek eskubide hauek babesten dituztela; euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak eskaintzeko behar diren hizkuntza-politikako neurriak erabakitzea eta bultzatzea, horrela bakarrik bermatuko baita euskararen biziraupena eta normalizazioa.

IV.3.12. Euskararen indarguneak enpresa munduan

Hona hemen esperientzia horien ondorio nagusienak:

- a) Ezinbestekoa da euskara enpresako beste edozein gai bezala planteatzea. Hau da, enpresaren funtzio bakoitza planifikatzen, burutzen eta kontrolatzen denean hizkuntzaren alderdia kontuan izan behar da;*
- b) Ezinbestekoa da guztiek parte hartzea, bakoitzak bere erantzukizunaren arabera. Horretarako, berriz, informazioa eta sentiberatze-lana dira giltzarri, parte hartuko dutenen borondatezko atxikimendua lortu behar baita;*
- c) Egitasmo bakoitzak bere ezaugarri propioak izango ditu: enpresaren tamaina, euskaldunen portzentajea, bezero-mota, jatorria eta abar.*

Hizkuntz egitasmoari heltzeko gai diren enpresek egitasmo berritzaileei ekiteko gai diren enpresa biziaren eta eraginkorraren irudia islatzen dute euren bezero, hornitzaile eta inguruko gizartean.

Gizabanakoen kezkak eta gogoak kontuan dituen enpresarekin errazago egiten dute bat langileek. Hizkuntz egitasmoari ekiten dioten langileek enpresaren egitasmo batekin egiten dute bat, hain zuzen. Horretan, enpresa-arduradunek bertako langileen jatorriari eta hizkuntzari buruz jarrera positiboa izan dezaten.

Azkenik, kalitate hobea eskaintzen ari dira hizkuntza-egitasmoa burutzen ari diren enpresak. Bere zerbitzu eta generoak balio erantsia dute, beraz.

VI.3.2.d. Euskararen erabilera: euskararen aldeko auzogintza eta zerbitzugintza enpresa munduan

Enpresetan euskararen erabilera areagotzeari begira, hizkuntza-politika antolatu helburu hauek kontuan hartuta:

Merkataritza-ganbarak, enpresariak eta enpresari-elkar-teak, elkargoak, sindikatuak, eta abar, hizkuntza-politika horretako partaide bihurtzea; lantokietan euskararen aldeko proiektuak ezartzeko markoa definitzea eta giza baliabideak nahiz ekonomikoak bideratzea; lantokien tipologiaren araberako proiektuak diseinatzea eta gauzatzea.

Kanpaina erraldoiak antolatu beharrean, banan-banako sentiberatze-jardunak egin industriaz, merkataritzaz, lanaz eta lanbide heziketaz arduratzen diren sailekin; enpresei zerbitzu emateko dauden enpresa publikoekin; enpresari, merkatarari eta profesionalen elkargoekin, eta udalerrri euskaldunetako enpresariekin, enpresa-munduko eragileen parte-hartzea lortzeko.

Dirulaguntza publikoak jasotzen dituztenez, hizkuntza-iriz-pideak ezarri enpresa-munduan diharduten enpresa-erakunde, sindikatu, merkataritza-ganbara eta elkargo profesionalak antolatzen dituzten ikastaroetan, orain arte bezala erdara hutsean izan ez daitezten.

c) Kontseiluaren Bai Euskarari Plan Estrategikoa

(...) Bai Euskarari Akordioan euskara hirugarren milurtean bizi eta gara dadin gure gizarteak duen erabaki sendoa islatu nahi dugu, izan ere gaur gaurkoz hori bermatu gabe baitago. Horregatik, hamarkada banaka batzuetan burura eramana nahi dugu gaurko erritmoan askozaz epe luzeagoa

beharko lukeen eta agian inoiz burutuko ez litzatekeen prozesua.

Prozesu horren gakoa gizarteko estamentu guztiak bertan inplikatzean datza. Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluak egindako gonbiteari erantzunez, Akordio honetan Euskal Herriko gizarte eragile nagusiok euskararen normalizazio osora iristeko dugun prestutasuna jaso dugu, guztiak protagonista izango dituen esku hartze prozesu ireki batean, eta beharrezko izango diren neurri normalizatzaileak adosteko konpromiso argiarekin.

Bai Euskarari Akordioaren puntuak:

- 1. Euskarak garapen osoa lor dezan bere normalizazioa behin betiko bideratuko duen prozesu batean eskuhartze-ko konpromisoa adierazten dugu.*
- 2. Prozesu hori hizkuntz normalizatorako Plan Estrategiko bat prestatuz eta ezarriz burutuko dugu. Horren bitartez hizkuntzaren egoera sektorez sektore eta lurraldez lurralde aztertuko dugu, maila bakoitzean beharrezko neurri normalizatzaileak finkatuko ditugu, eta horien arabera, plana diseinatzen esku hartuko dugun gizarte-eragileok konpromiso zehatz eta borondatezkoak hartu eta praktikan ezarriko ditugu. (...)*
- 3. Akordio eta konpromiso dinamika honetan euskal gizarteak bere hizkuntza berreskuratzeko duen borondate garbia islatu nahi da. Erabaki hori gizartearen adierazgarri diren gizarte eragileen esku hartze zabalaren bitartez bideratu ahal izateko guztiei zabalik daude Bai Euskarari Akordioa eta ondoren burutuko den konpromiso prozesua.*

3. BALIABIDEAK

Puntu honetan euskararen normalizaziorako baliabideak zehazten dira: giza baliabideak (Euskara Batzordea, Koordinatzailea eta Arduraduna), prestakuntza (euskalduntzekoa eta euskaraz lan egitekoa) eta laguntzak (itzulpen eta zuzenketa zerbitzua, zentroko hizkuntz laguntza...).

3.1. GIZA BALIABIDEAK

3. art. Euskara Batzordearen xedea. ELA Sindikatuan euskararen erabilera normalizatzeko egiten diren lanen jarraipena eta ebaluaketa da Batzorde honen xedea. Horretarako, ondorengo funtzio eta lanak jorratuko ditu:

- Euskararen normalizaziorako neurriak proposatu, Euskara Plana aztertu, helburuak zehaztu, lehentasunak finkatu, Arautegi hau hobetzeko proposamenak egin, urte amaierako Memoria aztertu eta baloratu, Euskara Planerako aurrekontua proposatu eta gastuen jarraipena egin...
- Euskara Planak, Sindikatuko zentro bakoitzean ezarritako helburuak bete ahal izateko, beharrezkoak diren laguntzak eman eta jarraipen zehatzak egin.

Euskara Batzordeak, Arautegia, Plana eta Memoria aztertu ondoren, Nazio Batzordearen esku utziko ditu, beronek horren gaineko azterketa, aldaketak eta onespena emateko.

Euskara Batzordeak, bere funtzioak era egokian bete ditzan, euskaraz jardungo du, eta bere jarduera esparrua ELA Sindikatuaren Organo Konfederal, Zerbitzu eta Atal, Federazio eta Eskualde guztietara zabalduko du. Euskara Batzordea urtean gutxienez 5 aldiz batzartuko da.

4. art. Euskara Batzordearen osaera. Batzordeko kideak hautatzeko, ondorengo irizpide hauek erabiliko dira: ELAren

egitura guztiak ordezkatuta egotea, lurralde guztiak ordezkatuta egotea, eta kideen euskara eta euskaltzaletasun maila.

Behar diren bileretan, beste zenbait ordezkari izango dira Euskara Batzordearen bileretan: Euskara Plana garatzeko kontratatutako kanpo aholkularitza, euskalduntzeaz arduratutako enpresa, gai zehatz baten inguruko arduradunak, etab.

5. art. Euskara Arduraduna eta Koordinatzailea. Arautegia eta Plana kudeatzeko, ELAn bi pertsona izango dira, bakoitzak ondoren azaltzen diren zeregin hauekin:

- a) **Euskara Arduraduna.** Euskara Batzordearen eta Nazio Batzordearen arteko koordinazio lana egingo du eta erabaki garrantzitsuen transmisioaz arduratuko da: Arautegia, Plana eta berau garatzen behar diren aurrekontuak. Horrez gain, Euskara Koordinatzaileari laguntza emango dio ELA barruan Planaren helburuak zabaltzeko eta jarraipenak egiteko.
- b) **Euskara Koordinatzailea.** Pertsona hau Euskara Planaren zuzendaritzaz arduratuko da: helburuen jarraipena, kanpoko enpresek egindako lanen jarraipena (aholkularitza, euskaltegiak, itzultzaileak...). Horrez gain, beste erakundeen aurrean (Eusko Jaurlaritza, Aldundia, Udalak, Kontseilua, etab.), Planaren ordezkaria izango da eta, era berean, Euskara Batzordeko burua.

6. art. Euskara Laguntzaileak. Eskualde eta Federazioetan Euskara Laguntzaile bana egongo da. Hauen zeregina, Euskararen Arautegia bultzatzea izango da, urtero, Planak zehazten dituen ekintzak burutzeko laguntza emanaz. Atal eta Zerbitzuetan, Laguntzailea Ataleko Arduradun bera izango da eta Organo Konfederaletan dagokion idazkaria.

7. art. Euskara Plana eta Memoria. Euskara Batzordeak, Arautegian ezarritako helburuak garatzeko ekintzak zehaztuko ditu, urtero egin eta onartuko den Euskara Planean. Plan horretan, arlo bakoitzean burutuko diren eginkizunak zehatz-mehatz aztertuko dira: baliabideak, ezagutza, kanpo erabilera, barne erabilera, motibazio-komunikazioa eta korpus-kalitatea. Urte amaieran, Memoria egingo da helburuen betetze maila ikusteko.

3.2. PRESTAKUNTZA

Langileen euskararen ezagutza handitzeko, hiru motako prestakuntza eskainiko da ELA Sindikatuan: euskalduntze-alfabetatzea, euskaraz lan egiteko prestakuntza eta langile berrien prestakuntza orokorra.

8. art. Euskalduntze-alfabetatzea. ELA Sindikatuak langileen euskalduntze indizea areagotzeko ikastaroak eskainiko ditu, ondorengo modalitate eta ezaugarrien arabera:

a) **Modalitateak.** Lau modalitate ezarriko dira: euskaltegietan bertan emango diren ikastaroak, ELAko egoitzetan emango diren taldeak, barnetegiak eta autoikaskuntza.

- **Euskaltegiak.** Langile bakoitzak hurbilen duen euskaltegi homologatuan ikasiko luke, astero 8-10 orduz, eta ikasturte bakoitzean 350 bat ordu eginez (HABEren lehengo mailakatzearen arabera, hiru maila urteko).
- **Ikastaroak ELAn.** Taldeak sindikatuaren egoitzetan bertan izango dira eta astero 6 eta 10 ordu bitartean emango dira, hau da, ikasturte bakoitzean 300 bat ordu.

- **Barnetegiak.** Goiz osoz edo egun osoz ikasteko. 15 egun gutxienez eta hilabete bat gehienez.
 - **Autoikaskuntza.** Ordenadore bitarteko prestakuntza eta, horrekin batera, mintzapraktika taldeetan parte hartzeko aukera. Astean 5 orduetik gora gutxienez egitea gomendatuta.
- b) **Ordutegia.** Sindikatuaren eta langileen artean erabakitakoaren arabera, euskalduntzeko emango den denbora erdia lan ordutegi barruan izango da eta beste erdia langile bakoitzaren kontura.
- c) **Parte hartzaileak.** Euskara ez dakiten edo maila baxua duten langile guztiek dute euskara ikasteko aukera. Hala ere, dagoen aurrekontuaren arabera lehentasunak ezarriko dira hiru irizpide hauek kontuan hartuz: aurreko ikasurteetan ikasten egon izana, adina eta langilearen lanpostua (saila eta funtzioa). Horrez gain, onartuta dauden lau modalitateen artean langileek non ikasiko duten ere erabakiko du Euskara Batzordeak, dauden baliabideen arabera.
- d) **Ebaluazioa.** Urtero, uztailean, Euskara Batzordeak ikasurteko ebaluazioa egingo du. Ebaluazio horretan, besteak beste, ondorengo bi irizpide hauek erabiliko dira: partaideen asistentzia eta euskalduntze mailen gainditze indizea.
- 9. art. Euskaraz lan egiteko prestakuntza.** Langile euskaldunek beren funtzioak euskaraz garatu ahal izateko, behar duten prestakuntza izango dute: terminologia ikasi, ohiko inprimakiak, gutunak eta bestelako testuak landu, etab. Horretarako, ondorengo prestakuntza motak eskainiko dira:
- a) **Modalitateak.** Modu progresibo batez, lau modalitate ezarriko dira langileek euskaraz lan egiten laguntzeko.

Hasieran ikastaro tekniko orokorrak eta, ondorengo urteetan, beste modalitateak ere eskaintzeko aukera egongo da.

- **Ikastaro tekniko orokorrak.** ELAko langileek euskaraz idazteko behar dituzten trebetasunak lantzeko ikastaroak: Estilo Liburua, ...
- **Ikastaro tekniko bereziak.** Sindikatuan jorratzen diren gai zehatzak lantzeko bereziki prestatutako ikastaroak: juridikoa, ekonomikoa, administratiboa, ofimatika, etab.
- **Urrutiko prestakuntza.** Interneten bidez, bai gai orokorrak bai gai bereziak lantzeko ikastaroak.
- **Banakako prestakuntza.** Hizkuntza aldetik, lan bereziak egiten dituzten langileentzat, talde bat osatzeko aukera ez dagoenean.

b) **Ordutegia.** Ikastaroek 10 orduko iraupena izango dute eta lan ordutegi barruan egingo dira.

c) **Parte hartzaileak.** Euskara Batzordeak lehentasunak jarriko ditu ikastaro hauek nork jaso behar dituen erabakitzeko, beti ere, lehentasunak eta ezarritako aurrekontua kontuan hartuz.

10. art. Langile berrien barne prestakuntza. Langile berriek jasotzen duten prestakuntza orokorrean ondorengo irizpideak kontuan hartuko dira: zenbait hitzaldi euskaraz eskaintzea, material osoa hizkuntza bietan jartzea eta euskara bera ere gai gisa lantzea: Arautegia eta Plana azaldu, langile bakoitzari dagozkion helburuak aztertu, dauden prestakuntza mota eta laguntzen berri eman, etab.

3.3. LAGUNTZAK

11. art. Itzulpen eta zuzenketa zerbitzua. Idatzizko komunikazioetan bi hizkuntzak erabiltzeko, kasu askotan itzulpena edo zuzenketa behar izango denez, ELAn hizkuntza arduradun bat egongo da. Honek, itzulpen eta testuen zuzenketak egiteaz gain, ulergarritasuna bermatzearren, jatorrizko testuetan egokitzapenak proposatu ahal izango ditu.

Itzulpen zerbitzua langile erdaldunei eta idazteko gaitasunik ez duten euskaldunei eskainiko zaie. Baita gainerako langileei ere, itzuli beharreko testua 3 orrialde edo gehiago duenean.

12. art. Zentroko hizkuntz laguntza. ELAko zentroek (eskualde, federazio, atal eta organo konfederalak) euskara teknikariaren bisita eta laguntza izango dute.

Horietan, oinarrizko itzulpen edo zuzenketak egin, errotulu eta oharrak egin eta behar dituzten materiala, hizkuntz zalantzak argitu eta laguntzak eskainiko dira. Horrekin batera, zentro bakoitzeko hizkuntza egoera eta jarritako helburuak aztertuko dira.

13. art. Telelaguntza. Prestakuntza ikastaroak eskaintzeaz gain, langileek unean uneko zalantzak argitzeko, terminologia kontsultak erantzuteko eta bestelako zalantzak argitzeko laguntza zerbitzua ere eskaini ahal izango du Sindikatuak.

14. art. Baliabide informatikoak. Euskara zerbitzu eta lan hizkuntza izan dadin, arlo informatikoan beharrezkoak diren baliabideak apurka-apurka ezarriko dira:

- **Itzulpenen biltegia.** Testu elebidunak gordetzeko lekua, itzulpenak edo testu berriak prestatu aurretik, bilatzeko aukera izateko.

EUSKARAREN ARAUTEGIA

- **Itzulpen memoriak.** Itzulpenak egiteko tresna laguntzailea, jadanik itzultako testu zatiak berrerabiliz.
- **Programa estandarrak (ofimatika):** langile euskaldunei euskarazko ofimatikako aplikazioak eskainiko zaizkie.
- **Aplikazio bereziak:** Sindikatuaren lanak kudeatzeko dauden aplikazioetan (kontabilitatea, nominak, ebaluaketa sistemak, etab.) euskara ere erabiliko da.
- **Hornitzaileek emandako programak:** komunikazio elektronikoetan (aurrezki kutzak, ...) euskara ere erabiliko da.

4. EZAGUTZA

Euskararen ezagutza handitzeko, ondorengo artikulua ezarri dira:

15. art. Euskara mailak. ELA sindikatuan euskaraz ere behar den moduan lan egin ahal izateko, eta afiliatuei zerbitzua euskaraz ere eskaintzeko, erreferentziako ondorengo euskara mailak zehaztu dira:

- **Elkarrizketa maila.** Langileak euskaraz hitz egiteko gaitasuna duenean.
- **Maila landua.** Euskaraz hitz egiteaz gain, langileak idazteko gaitasuna ere duenean.

16. art. Lanpostu elebidunak. Erreferentzia gisa, ondorengo lanpostu hauetan euskara mailaren bat eskatuko zaie hautagai berriei, aurrerantzean:

- **Organoak.** Nazio Batzordeko kideei elkarrizketa maila eskatuko zaie.
- **Konfederakundearen Zerbitzu eta Atalak.** Maila landua eskatuko zaie hauei: Administrazioa, Prestakuntza, Prentsa eta Argitalpenak, Azterketa Bulegoa, Nazioarteko Saila, Genero Politika, Gazteak, Lan Osasuna, Etengabeko Prestakuntza, Zerbitzu Juridikoak eta Negoziazio Bulegoa.
- **Eskualde eta Federazioak.** Euskara Planak zehazten baldin badu, zenbait eskualde eta lanpostutan eskatu ahal izango da maila hauetako bat.

17. art. Langileen kontratazioa. ELAk eskaintzen duen zerbitzua bi hizkuntzetan eskaini ahal izateko, aurrerantzean egingo diren kontratazioetan langileak elebidunak izan dai-

tezen neurriak hartuko dira eta langile euskaldunek lehen-tasuna izango dute.

ELAn, langile berri bat sartzen den bakoitzean, Koordinatzaile-Arduradunak Euskararen Arautegia eta Planaren berri emango dio eta bere zentroko arduradunak euskarari dagokionez bete beharreko helburuak azalduko dizkio.

18. art. Langile euskaldunen identifikazioa. ELAn euskaraz egiteko dauden aukerak ondo ezagutarazteko, jendaurreko zerbitzuetan langile euskaldunak errotulazio egokiaren bidez identifikatuta egongo dira.

5. BARNE ERABILERA

ELAn ditugun barne harreman garrantzitsuenak afiliatuekin garatzen direnak dira. Horiez gain, ordezkari, liberatu eta egiturako langileekin ere baditugu harremanak. Barne harreman hauetan, euskararen erabilera ondorengo artikuluen arabera garatuko da. Arautegi honetan, "langileak" aipatzen direnean, egiturako langileak hartu dira kontuan.

19. art. Ahozko komunikazioak oro har. Arau orokor gisa, ELAren ahozko komunikazioetan, ondorengo irizpideak hartuko dira kontuan:

- a) **Harrera eta lehenengo hitza.** Ezezagunekin egin beharreko elkarrizketetan, agurra euskaraz egingo da mintzakide euskalduna den jakiteko.
- b) **Elkarrizketak.** Euskaldunen arteko solasaldietan euskara erabiltzea sustatuko da.
- c) **Bilerak.** Batzarkide guztiak euskaldunak direnean euskaraz egingo dira bilerak, baten batek euskara maila baxua badu ere. Partaideetako baten bat erdalduna denean, bileraren zatiren bat behintzat euskaraz egiten ahaleginguduko gara, amaieran erdaldunei laburpena eginez.
- d) **Kongresuan eta Nazio Kontseilua.** Aldi bereko itzulpen sistema erabiliko da.

20. art. Idatzizko komunikazioak oro har. Arau orokor gisa, ELAren idatzizko komunikazio orokorrak elebidunak izango dira. Hizkuntza biak kokatzean, euskarari lehentasun espazial edota tipografikoa (ezkerrean edo goiko aldean, letra lodia...) emango zaio, Estilo Liburuak zehazten duen moduan. Ingurune euskaldunetan edo sektore oso euskaldunetan (irakaskuntzan esaterako), komunikazioak euskara hutsean egin ahal izango dira.

Oraindik erdara hutsean dauden komunikazioak hizkuntza bietan jartzeko prozesuan, lehenasuna izango dute zabal-kunde handia duten komunikazioek eta testu gutxi dutenak.

Idatzizko komunikazio pertsonalizatuetan, hau da, hartzaile bakar batentzat direnean, arau orokor gisa hartzailearen hizkuntza erabiliko da (euskara, gaztelania, ingelesa, ...).

21. art. Informatikazko komunikazioak oro har. Informatikaren bidez igortzen diren komunikazioetan euskararen erabilera sustatuko da, ondorengo irizpideen arabera:

- a) **ELAk sortutako aplikazio bereziak** (afiliatuen informazioa kudeatzeko, langileen lana kudeatzeko, intranet, etab.): hizkuntza bietan egiteko neurriak hartuko dira.
- b) **Ordenadorean betetzen den informazioa** (zerrendak, datu baseak, etab.): euskararen erabilera ziurtatuko da langileek sortutako zerrenda eta datu base guztietan.
- c) **Posta elektronikoak:** langileen arteko zein kanpo harremanetarako mezuak hartzailearen arabera egingo dira, eta hartzailea euskalduna denean mezua euskaraz izan dadin ahaleginak egingo dira.
- d) **Kanpoko hornitzaileek emandako programak** (Bankukoak, aurrezki kutxetakoak etab.): euskaraz egoteko aukera aztertuko da.

22. art. Errotulazioa. Barruko errotulazioan hizkuntza biak erabiliko dira edo, euskara hutsean, erabiltzaile guztiak euskaldunak direnean: barruko errotuluak, barrukoentzako oharrak, artxibadoreen bizkarrak, etab.

23. art. Idazki inprimatuak. Euskarri inprimatu estandarretan hizkuntza biak erabiliko dira: afiliazio txartela, afiliazio orria, nominak, barruko kautxuzko zigiluak, etab.

24. art. Afiliatu eta ordezkarietako (delegatuak) harremanak. Arau orokor gisa, afiliatu eta ordezkarietako ahozko, idatzizko eta informatikazko harremanak hizkuntza bietan egingo dira.

25. art. Liberatuekiko harremanak eta euren eginkizunak. Liberatuekin dauden ahozko, idatzizko eta informatikazko harremanak hizkuntza bietan egingo dira. Liberatuek, bakoitza aritzen den zentroko hizkuntza helburuak ezagutuko dituzte eta saiaturiko dira ere, ahal duten neurrian, horiek betetzen. Horrez gain, liberatuek aukera izango dute sindikatuan dauden euskararako laguntzez baliatzeko, urteroko Euskara Planean zehaztutakoaren arabera.

26. art. Langileetako harremanak. Arau orokor gisa, langileekin dauden ahozko, idatzizko eta informatikazko harremanak hizkuntza bietan egingo dira.

ELAn dauden edo sartzen diren langile euskaldun guztiak, erabilerari dagokionez, haien zentroari dagozkion helburuak betetzen saiaturiko dira.

6. KANPO ERABILERA

ELAk dituen kanpo harremanak oso anitzak dira: gizartea oro har, enpresa batzordeak, enpresak, Administrazioa eta erakunde publikoak, beste sindikatuak, bestelako harremanak... Kanpo harreman hauetan, euskararen erabilera ondorengo artikuluen arabera garatuko da.

27. art. Kanpoko komunikazioak ahoz eta idatziz. Sindikatutik kanpo egiten diren ahozko eta idatzizko komunikazioetan, barne harremanetarako jarritako irizpide orokorrak erabiliko dira (19.a,b,c eta 20. artikulua).

28. art. Kanpo errotulazioa. ELAren errotulazio eta kanpora begirako agerpen orokorrak hizkuntza bietan izango dira, hala nola, errotulu finkoetan, aldi baterako errotulu edo oharretan, tresnerien errotulazioan, segurtasuneko errotulazioan, horma irudietan eta abarretan.

29. art. Idazki inprimatuak. Idazki inprimatu estandarretan hizkuntza biak erabiliko dira. Esaldi edo testuak ulerterrazak direnean, euskara hutsez egongo dira: orri-burua edo menbretea, bisita txartelak, fax orriak, ordezkarien orduen ziurtagiria, kautxuzko zigiluak, etab.

30. art. Argitalpenak eta publizitatea. Sindikatuaren argitalpen eta publizitateko euskarri guztietan (esku orriak, kartelak, pankartak, esloganak...) hizkuntza biak erabiliko dira eta euskarari lehentasuna emango zaio. Euskarri informatiboan eta interneten daudenak ere elebidunak izango dira: aurkezpenak, webguneak...

31. art. Harrera hizkuntza. Sindikatuan, harrera funtzioa betetzen duten langileek euskaraz egingo dute aurrez aurre eta telefonoz (lehen hitza, agurra...). Horrela, herritarrak euskaraz egiteko aukera dutela ohartuko dira. Errotulu ego-

kia ere izango dute agerian, euskaraz egin daitekeela adierazteko. Horiez gain, erantzungailuetan, ahots buzoietan, megafonian eta ahozko bestelako komunikazioetan euskara ere erabiliko da.

32. art. Enpresak. Enpresen ordezkariekin egiten diren ahozko eta idatzizko harremanetan euskararen erabilera ahoz eta idatziz sustatuko da, sektorearen euskalduntze mailaren arabera.

33. art. Administrazioa eta erakunde publikoak. Erakunde hauetan egiten diren ahozko eta idatzizko harremanetan euskara erabiliko da ondoren zehaztutakoaren arabera:

- a) **Idatzizko komunikazio laburrak** (bilera deialdiak, oharak, etab.). Bi hizkuntzetan egingo dira edo euskara hutsan denak euskaldunak direnean.
- b) **Idatzizko komunikazio luzeak** (txostenak...). Aurrean aipatutako idatzizko komunikazio laburrak euskaraz egitea lortzen denean, luzeak ere egiten hasiko dira bi hizkuntzetan.
- c) **Ahozko komunikazioak:** 19. puntuan zehaztutakoaren arabera.

34. art. Beste sindikatuak. Beste sindikatuekin egiten diren idatzizko komunikazio guztietan euskara erabiliko da, eta ahozkoetan, 19. puntuaren arabera jokatu da.

Horrez gain, beste sindikatuekin batera egiten diren euskararen aldeko kanpainetan, ondorengo helburuak txertatuko dira: langileentzako komunikazio elebidunak lortzea enpresetan, euskara ikasteko aukeraren bat izatea, enpresek bezeroei eskaintzen dieten zerbitzuetan euskara kontuan hartzea, etab.

35. art. Bestelako harremanak. Gainerako harremanetan (bestelako erakundeak, hornitzaileak,...) euskara ere erabiliko da, ahoz eta idatziz. Adibidez, ELAk kontratatzen dituen zerbitzuetan (mezulariak, garraiolariak, ostalaritza, arte grafikoak, internet,...) euskararen ezagutza eta erabilera baloratuko da, ahozko zein idatzizko komunikazioetan: kontratuetan, ordainagirietan, etab.

7. MOTIBAZIOA ETA KOMUNIKAZIOA

36. art. Euskararekiko motibazioa handitzea barne harremanetan. Barrura begira, euskararekiko kezka handitzeko eta afiliatu zein langileak motibatzeke, hainbat ekintza egingo dira:

- a) **ELAren argitalpenak.** Sindikatuaren informazio aldizkarietan, euskararen normalizazioaren gaia landuko da modu iraunkor batez: ELAren Euskara Plana, helburuak, lorpenak, ... Sindikatuaren euskararen berriez gain, gizar-tearen eta beste sektoreen informazioak ere eskainiko dira.
- b) **Langile berriak.** Egiturako langile berriak, hasieratik, euskarak sindikatuan duen garrantziaz jabe daitezen, besteak beste, ondorengoak egingo dira: Arautegi eta Planaren berri eman, lanpostuari dagozkion hizkuntza helburuen berri eman, etab.

37. art. Euskararekiko motibazioa handitzea kanpo harremanetan. Euskararen erabilera kanpo harremanetan ere sustatzeko, hainbat ataletan jardungo du ELAk:

- a) **Beste sindikatuen eta ELAren ordezkariak enpresetan.** Euskararekiko motibazioa handitzeko eta lan munduan euskararen erabilera areagotzeko, ELAk, besteak beste, kanpaina iraunkorrak eta bestelako ekimenak sustatuko ditu.
- b) **Enpresak eta enpresarien elkarteak.** Sindikatuak jarrera aktiboa izango du eta hitzarmen kolektiboetan euskararen gaia sartzen ahaleginduko da.
- c) **Erakunde eta organo publikoak.** ELAk ordezkarietza duen administrazio eta organo publikoetan, euskara normalizatzeko konpromisoa har dezaten ahaleginduko da.

- d) **Euskaraz egiteko aukeraz ohartaraztea.** Egoitzetan, herritarrei harrera egiten zaien leku ikusgarrietan, erro-tulu egoki bat jarriko da, euskaraz egiteko aukera dago-ela adierazteko.
- e) **Hornitzaileak informatu.** Euskarak duen garrantzia gogorazi hartu-emanetan, ELAren normalizazio proze-suaren berri eman eta apurka-apurka beraien komunika-zioetan euskararen presentzia bermatzeko eskatu.

8. KORPUSA ETA KALITATEA

ELA Sindikatuan euskara argia eta estandarizatua erabiltzeko, ondorengo artikulua ezarri dira:

38. art. Euskararen Estilo Liburua. Sindikatuan erabili beharreko euskara eta idazki estandarrak Estilo Liburuan arautuko dira eta berauek hartu behar dira erreferentzia gisa. Liburu honetan, hainbat erreferentzia, informazio eta laguntza eskainiko dira euskara ulergarri eta estandarizatua egiteko:

- Oinarrizko hizkuntza arauak: idazki elebidunak nola egin, testuak ulergarriak izateko irizpideak, hartzailea kontuan hartzea, genero bereizketarik ez egitea, euskalkien erabilerak,...
- Ohiko idazki ereduak: deialdiak, gutunak, inprimakiak, oharra, txostenak...
- Erabili behar izaten diren zerrendak: lanpostuak, herrien izenak, kaleak, siglak, deiturak,...
- Erredaktatzeko laguntzak: sintaxia, puntuazioa, terminologia, ...

39. art. Terminologia. Langile guztien eskura hiztegi elektronikoa jarriko da, eguneroko jardunean euskaraz erabili beharreko terminologiarekin: hitz orokorrak, arloetako hitz teknikoak (zuzenbidea,...), etab. Hiztegi honen bidez, sindikatuaren zentro guztietan terminologia berbera erabiltzea sustatuko da.

40. art. Zerrenda eta testu ofizialak. Sindikatuan erabiltzen diren oinarrizko zerrenda eta testu ofizialak bi hizkuntzetan agertuko dira beti, eguneratuta eta langileen eskura, biek maila ofizial bera izango dutelarik: Orga-

nigrama, Barne Araudia, lan hitzarmenen ereduak, Lan Egu-
tegia, Laneko arriskuen prebentziorako neurriak, Telefono
zerrenda, etab.

41. art. Toponimoak eta kale izenak. Toponimo eta kale
izenetan, euskararen erabilera bultzatuko da.

9. AZKEN XEDAPENA

42. art. Arautegia indarrean jarri. Arautegi hau ELAko Nazio Batzordeak jarri du indarrean 2004ko irailaren 27an. Arautegi hau aldatzeko eskumena Nazio Batzordeak dauka, beti ere Euskara Batzordearen proposamen eta iritziak kontuan hartuta.

43. art. Arautegiaren informazioa eman. Arautegi honen berri langile guztiei emango zaie eta, bereziki, bakoitzari dagokiona eta bere lan zentroari. Horrez gain, langile berri bat plantilan sartzean, dagokion Arduradunak edo Euskara Koordinatzaile-Arduradunak euskarak sindikatuan duen garrantzia azalduko dio.

Bilbon, 2004ko Irailaren 27an

XI Kongresuaren 6. ebazpena

*Euskararen normalizazioa bultzatzea,
norberaren eta guztion konpromisoa*

EUSKARAREN NORMALIZAZIOA BULTZATZEA, NORBERAREN ETA GUZTION KONPROMISOA

X. Kongresu Konfederalean onartutako 5. Ebazpenean, euskara lan munduan normalizatzen laguntzeko asmoa adierazi, eta ELAren baitan normalizazio plan oso baten beharra azpimarratu genuen.

Konpromiso hauek gauzatze aldera, urrats garrantzitsu bat eman dugu ELAren euskararen aldeko ibilbidean, euskararen Arautegia eta urteko normalizazio plana onartuz. Arautegia, euskara normalizatu ahal izateko tresna arau emailea da, euskararen erabilpenari buruzko erizpide orokorrak biltzen dituena. Gainera, urtero onartuko ditugun euskara planetan, normalizazio prozesu honetan urte bakoitzerako jartzen ditugun helburuak eta baliabideak zehaztuko ditugu.

Sindikatuan normalizazio plan bat abian jartzearekin erabaki politiko garrantzitsu bat hartu dugu: euskararen gaia antolakuntza ikuspegi batetik planifikatzea, antolakuntzaren azterketan txertatzea, epe ertainean euskara ELAn zerbitzu hizkuntza eta lan hizkuntza osoa izan dadin. Horretarako, urteroko aurrekontuan, beharrezkoa den diru kopurua bideratuko dugu.

Arautegiak eta urteko planak jasotzen dituen neurri zehatzen artean, ondorengoak izenda ditzazkegu: euskaraz ez dakitenek euskaraz ikastea, euskaraz dakitenek euskara erabiltzea eta euskaraz lan egiteko prestatzea, sortzen ditugun idatzi eta argitalpen guztietan euskararen erabilpena ziurtatzea, euskararen idatzizko erabilera sustatzeko tresnak sortzea,

barne eta kanpo erabileran tokian tokiko helburuak zehaztea... Normalizazio prozesu hau bultzatzeko eta jarraipena egiteko, Euskara Batzordea sortu da ELAn, sindikatuko egitura eta herrialde ezberdinetako ordezkariez osatua.

Hala ere, normalizazio plan honek aurrera egiteko, behar beharrezkoa da ELAko kide guztion parte hartzea eta euskararen aldeko bakoitzaren konpromiso pertsonala. Norbanakoaren atxikimendu honek sortuko du bakarrik talde konpromisoa, euskara normalizatu baten aldeko ELAren engaiamendua.

ELAn euskaraz dakigunak asko gara, gehiengo. Euskalduntze tasa %66koa da. Hala ere, euskararen erabilera askoz ere txikiagoa da eguneroko lanean, geure buruari eta geure inguruari erreparatu besterik ez daukagu. Bakoitzak egin behar du bere hausnarketa. Zer egin dezaket nik, nire esparru txiki honetan, euskara sustatzeko eta bultzatzeko? Erabileraren gabeziaren zati bat prestakuntza planarekin konponduko dugu, beste zati handi bat, aldiz, geure eskuetan dago, geure eskuetan bakarrik.

Bestalde, ELAren normalizazio plana abiapuntu ederra da lan harremanak euskalduntzearen alde lan egiteko konpromisoa berresteko, sindikatu nagusi bezala, dagokigun neurrian, geure erantzunkizuna hartuz. Lan munduaren euskalduntzerik gabe, ez dago euskararen normalizaziorik, eta arlo hori da, hain zuzen, euskararen normalizazioari geratzen zaion erronkarik garrantzitsuena.

Lan mundua euskalduntzeko modu egokian jokatu behar dugu arlo honetan inplikaturik gauden guztiok.

Batetik, neurri politiko eraginkorragoak aldarrikatzen ditugu, besteak beste, enpresetan onartzen diren normalizazio planentzat era guztietako babesa. Nafarroan eta Iparraldean egoera larriagoa da. Esparru hauetan euskarak lan munduan ere aurrera egiteko, lehenetsuna izan behar duen funtsezko erabaki politikoa euskararen ofizialtasun osoa aitortzea da.

Bestetik, enpresariei eskatzen diegu gai honetan dagokien ardura har dezaten, enpresetan normalizazio planak garatzeko baliabideak eskainiz eta bultzada emanez. Langileoi ere, gauden enpresetan, zerbitzu eta lana euskaraz egiteko urratsak ematea dago-kigu, modu antolatu eta etengabea. Zentzu hone-tan, ELAk, ahal duen enpresa eta sektoreetan, euska-raren erabilpena bermatzeko neurriak bultzatuko ditu, helburu honekin bat egiten duten beste eragile-ekin elkarlanean.

Guzti honengatik, XI. Kongresu Konfederal honek,

1. ELAren euskararen normalizazio prozesuari behar dituen bultzada eta indarra eman nahi dizkio.
2. Lan munduaren euskalduntzea sustatzen jarraitzeko engaiamendua adierazten du.
3. Afiliatu guztiei dei egiten die euskararen alde gogotsu lan egin dezaten, enpresa barruan eta kanpoan, iharduera sindikala euskararen aldeko militantziarekin uztartuz, horrela bakarrik lortuko bait dugu sindikatu guztiaren euskararen aldeko jarrera sendotzea.

Azkenik, gogoratu normalizazio prozesuen bilakaera ez dela erraza izaten eta bakoitzaren borondatezko atxikimendua behar beharrezkoa dela. Badaukagu lanik, baina guztion artean aurrera egingo dugunaren uste osoarekin, erabili dezagun euskara geure eguneroko lanean! Ez da lelo bat, euskararen normalizazioa norberari dagokio, guztioi dagokigu.

Bilbon, 2004ko Azaroaren 27an